

Larraintzarko

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2020-2021	IRAKASLEA	Nahia Grande Gereduz
MAILA	DBH 2	ARLOA	Gizarte Zientziak

HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

Hemen aurkituko dituzue: 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen **curriculum**a ezartzen duena. http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

EDUKIAK / GAIAK

1. hiruhilabetea	<ol style="list-style-type: none">1. Sarrera: Historia, iraganaren azterketa.2. Antzinaroa: Grezia eta Erroma3. Antzinaroko munduaren zatiketa.
2. hiruhilabetea	<ol style="list-style-type: none">4. Feudalismoa eta hiritartzea.5. Al-Andalus.6. Iberiar Penintsulako kristau-erresumak. Nafarroako Erresuma.
3. hiruhilabetea	<ol style="list-style-type: none">7. Gure Planetako biztanleak.8. Hiria eta hiri ingurunea.9. Kontinenteetako giza geografiaren atlasa.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK


Ebaluazio bakoitzaren kalifikazioa modu honetara aterako da:

- **Ebaluazio bakoitzeko azterketek eta biltzeko lanek % 70.**
- **Koadernoak, klase eta etxeko jarduerak % 20:**
- **Ikaslearen jarrerak % 10:**
- Azterketa bakoitzean 4a atera beharko da gutxienez batz bestekoa egin ahal izateko.
- Ebaluazio bakoitzean zehazten diren lanak entregatu beharko dira. Derrigorrezkoa izanen da hauek egin eta gainditzea ebaluazioa gainditzeko.

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzarko

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

- Jarreran 5a atera beharko da gutxienez ebaluazioa gainditu ahal izateko.
- 1go, 2. edo 3. ebaluazioak gainditu ezean, errekeraketa egingen da ebaluazio bakoitzaren bukaeran. Bertan gehienez ere 5eko kalifikazioa lortuko da.
 - Ebaluazioaren errekeraketa, ebaluazio osoarena izanen da.

Ohiko eta ez ohiko deialdiak:

- Ohiko deialdia: ebaluazio bakarra gainditu ez denean, horren berreskurapena egingen da. Bi ebaluazio edo gehiago utzi badira, urte osoaren berreskurapena egingen da.
- Ez ohiko deialdia: ebaluazio bakarra gainditu ez denean, horren berreskurapena egingen da. Bi ebaluazio edo gehiago utzi badira, urte osoaren berreskurapena egingen da.

Pendientek:

Berreskurapen plan bat prestatuko da ikasleentzat, eta azterketa egin beharko da irakasgaia berreskuratu ahal izateko.

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

BALIABIDEAK

- Testuliburua: Geografia eta Historia 2. Argitaletxea: Zubia-Santillana
- Ikaslearen koadernoak. Eguneroko lan tresna.
- Chromebooka.
- Classroom eta Drive.
- Bestelako baliabideak: USB, kalkulagailua, erregela, kolorezko margoak, DVD, mapak, Interneta, prentsa...

METODOLOGIA

Egunerokotasuneko funtzionamendua: edukiak landu, eduki horiek eskema edota mapa kontzeptualen bidez behar bezala antolatu, eta hauek finkatu edota sakontzeko ariketa mota desberdinak egin.

Irakasgaiaren Classroom eta drive karpetak sortuko dira, egin beharreko lana zehaztu eta materiala igotzeko.

Horretaz gain, eduki hauek osatzeko bestelako baliabideak erabiliko ditugu: interneteko programa didaktikoak, mapak, testuak (eskola liburuetatik, prentsatik...), filmak eta dokumentalak...Eta hauekin lanketa bereziak egingo ditugu.

Aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera uzten bada telematikoki lan egingo da, ikasgelako plataformak erabiliz.

Oharra: honako programazio labur hau, ikasturtean zehar ematen ahal diren beharretara egokitzeko irekia dago.

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarrai@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es